

2021eko URRIAREN 26an GARAPENERAKO LANKIDETZAREN KONTSEILU ERREKTOREAK egindako BILKURAREN AKTA.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2021eko urriaren 26ko 12:00ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- **Presidentea:** Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea.
- **Bokala:** Iker Atxa Zaitegi jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakartzaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarren ordezkari gisa.
- **Idazkaria:** Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Era berean, gai-zerrendan dauden gaiak aurkezteko laguntza teknikoa eskaintzearen, honako hauek ere batzartu dira, gonbidatuta: Jose Antonio Rodríguez Ranz jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, eta Alazne Camiña Izkara andrea, eLankidetzako Koordinazio Teknikoko arduraduna.

Sarrera

eLankidetzako eta haren Kontseilu Errektoreko presidentek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. 2021eko urriaren 13an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
2. 2021eko proiektuetarako laguntzak emateko proposamena onartzea, hala badagokio.
3. Galde-eskeak

Presidenteak eman dio hasiera bilkurari, eta adierazi du gaur aztertu beharreko gairerrendari buruzko dokumentazio guztia alde aurretik helarazi dela.

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2021eko urriaren 13ko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

2. 2021eko proiektuetarako laguntzak emateko proposamena onartzea, hala badagokio.

Proiektuetarako laguntzen deialdia (PRO) da Elankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren deialdirik garrantzitsuen, bai funtsen bolumenagatik (32 milioi euro), bai sustatzen dituen agenteen eta ekintzen kopuruagatik, eta bilkura honetan onartzea proposatu da. Proposamen horrekin 77 proiekturi lagunduko litzaieke, modalitate desberdinetan (garapenerako lankidetzeta, prestakuntza eta laguntza teknologikoa eta eraldaketa sozialerako hezkuntza), eta lankidetzarako euskal politikaren ildo estrategikoak indartzen ari dira. Zehazki, emakumeak ahalduntzea sustatzen duten ekimenetarako funtsen esleipenak askoz ere handiagoa izaten jarraitzen du garapenerako lankidetzari buruzko Dekretuaren 23.3 artikuluan ezarritako funtsen % 10eko erreserba baino. Maila geografikoan, halaber, Saharaz hegoaldeko Afrikan egin beharreko proiektuetarako funtsen % 20ko erreserba errespetatzen da (23.3 artikulua).

Proiektu guztien zerrendarekin (emandakoak, funtsak agortu izanaren ondorioz ukatuak, baztertuak eta atzera botatakoak) emandako informazioa oinarritzat hartuta, Alazne Camiñak deialdiko laguntzak emateko proposamenaren elementurik garrantzitsuenak aurkeztu ditu, eta 2021eko eta 2020ko ebazpenen arteko alde interesgarrienak nabarmendu.

Behin azalpenak eman ondoren, Kontseilu Errektoreko kideek ez dute galderarik egin, eta beraz laguntzak emateko proposamena onartu behar dute. Hala, laguntzak emateko proposamena onartu da aldeko 5 botorekin eta 2 abstentziorekin (Josu Urrutia eta Patricia Bárcena).

3. Galde-eskeak

Kontseilu Errektorearen hurrengo bilera azaroaren 16ko 13:00etan izango dela jakinarazi da.

Ez denez beste gairik proposatu, saioa amaitutzat eman da 12:45ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehenera paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE^o Beatriz Artolazabal Albeniz andrea,
Agentziako eta haren Kontseilu
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
GLEAko zuzendaria